

# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

## Lurraren orbitaren eta klimaren arteko harremana

LORRAIN LISIECKI estatubatuar ikerlariak Lurraren orbitaren eta klima aldaketaren arteko harremana topatu du, mundu osoko 57 lekutan azken 1,2 milioi urteetako hondakinak aztertu eta gero.

Jakina da Lurra eguzkiaren inguruan duen orbita 100.000 urtero aldatzen dela: batzuetan zirkularragoa da eta besteetan eliptikoagoa. Horrez gain, Lurra bere buruarekiko duen biraketa-ardatzak 41.000 urteko zikloa du. Glaziazioak 100.000 urtero gertatzen dira, eta Lurraren biraketa-ardatzaren aldaketa bat etortzen direnean, glaziazioaren iraupena aldatu egiten da.



Beste aurkikuntza bat ere egin du Lisieckik: orbita aldaketa txikiekin glaziazio bortitzenak gertatu direla, eta aldaketa handienekin glaziazio leunenak. Datu horrek Lurraren klimatologian kontrolatzen ez ditugun faktore asko dagoela adierazten du. Ikerketaren eremua oso zabala da oraindik.

## Auto-pilaketa harrigarriak

DENOI GERTATU ZAIGU auto-pilaketa batean geratu garela, ez aurrera eta ez atzera, trafiko askorik edo istripurik izan gabe, eta bat-batean pilaketa desagertu dela, zer gertatu den inork ez dakiela.

Bristol-eko Unibertsitateko ikerlariak gai hori hartu dute ikerketa-lerro gisa. Aipatu dutenez, auto asko dabilenean nahikoa da, butxadura erraldoia sortzeko, gidari batek errei batetik bestera aldatzeko egindako maniobra. Esaterako, errei batean doan kamioia beste erreira pasatzen bada, errei horretatik datorren automobilak abiadura gutxitzen du, eta haren atzetik datorrenak are gehiago gutxitu behar du, eta... Ondorioz, kilometro batzuk atzetik datorrenak erabat gelditu behar izaten du.

Errepidean egindako ekintza txiki bat handituz doan elur-bolaren gisa barreiatzen da, hainbat kilometrotan. Pilaketa mota horietan, errekorra 80 kilometrokoa omen da.



## Muskerren %20 desagertu daiteke mende honen amaierarako

Badirudi beroarekin musker-rak eta sugandilak askoz hobeto bizi direla, baina *Science* aldizkarian argitara emandako artikulu baten arabera, narrasti horien oreka termikoa hautsi dezake klimaren gehiegizko berokuntzak.

<http://ttiki.com/13388> (Frantsesez)

## Grabitatearen aurkako ilusio optikoa

Matematikako Ikerketa Aurreratuaren Meiji Institutuko (Japonia) Kokichi Sugihara ikerlariak irabazi du ilusio optikoen lehiaketa bat. Sugiharak asmatutako tresnan, bolatxoek aldapa batean gora egiten dute, grabitatearen aurka. Ez duzula sinesten? Ikus bada bideoa, ondoko loturan klik eginez.

<http://ttiki.com/13389> (Frantsesez)

## Parisko Foucault-en pendulua hautsi egin zen apirilean

Parisko Arte eta Lanbideen Museoa dagoen Foucault-en pendulua, betiereko higidura duen pendulua alegia, hautsi egin zen joan den apirilaren 6an, baina esfera berria jarri eta berriro martxan da.

<http://ttiki.com/13390> (Frantsesez)

**Babeslea: iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16